

MONDRAGON

PREMIOS TFG-TFM MONDRAGON SARIAK: OINARRIAK

2026eko berrikuspena

1- XEDEA: ZER DIRA PREMIOS TFG TFM MONDRAGON SARIAK?

MONDRAGONen asmoa da gure gizarteak bizi duen eraldaketa sakona aldi berean berritzailea, jasangarria eta pertsonengan oinarritua izatea, eta, horretarako, talentu gaztearen ekarpena behar dugu. Horregatik, XXI. mendeko erronkei ekarpen berritzailea egiten dieten gradu bukaerako lanak (aurrerantzean "TFG") eta master bukaerako lanak (aurrerantzean "TFM") saritu nahi ditugu.

TFG eta TFM lanak **bost gai-kategoria** hauetakoren **bakar batean** aurkeztuko dira:

- **Eraldaketa digitalerako Danobatgroup saria.**
- **Pertsonetan oinarritutako eraldaketarako MONDRAGON saria.**
- **Eraldaketa energetiko-klimatikorako Fagor Taldea saria.**
- **Osasunaren eta zaintzaren eraldaketari MONDRAGON Health saria.**
- **Finantzak eraldatzea gizartea eraldatzeko Laboral Kutxa Saria.**

10 sari emango dira eskudirutan, aurreko bost gai-kategorietako bakoitzean 2:

- **2.500 euro lehenengoarentzat** eta
- **1.250 euro bigarrenarentzat.**

Era berean, 50 diploma emango zaizkie, kategoria bakoitzean finalista gisa aukeratutako 10 lanei hain zuzen ere.

Gainera, **zeharkako hiru sari** ditugu:

- **Euskarazko proiekturik onenaren EIKA saria.**
- **IKERLAN saria proiektu berritzaileenari.**
- **MUNDUKIDE saria inpaktu sozial handiena duen proiektuari**

Zeharkako sari hauek eskuratzeko ez dago izena eman beharrik. Saridunak bost gai-kategorietan aurkeztutako lan guztien artetik aukeratuko dira. Bi zeharkako kategoria horietako bakoitzak **2.500 euroko sari bakarra** ematen dio lan irabazleari.

2- NOR DA ANTOLATZAILEA?

MONDRAGON Korporazio Kooperatiboa da (aurrerantzean "MONDRAGON") TFG TFM MONDRAGON Sarien (aurrerantzean "Sariak") antolatzailea. Helbide soziala: Arizmendiarrieta pasealekua, 5. Arrasate - 20500, eta IFK: F20350823. Gainera, Sarietan honako hauek parte hartzen dute kooperatiba ko-antolatzaileak:

- **Danobatgroup S.Coop.**, Eraldaketa digitala kategoriaren babesle gisa.
- **Laboral Kutxa S. Coop.** Finantzak eraldatzea gizartea eraldatzeko kategorian.
- **Fagor Taldea S. Coop.**, Eraldaketa energetiko-klimatiko kategoriako babesle gisa.
- **MONDRAGON Health**, Osasunaren eta zaintzaren eraldaketaren kategoriako babesle gisa.
- **Eika S. Coop.** Euskarazko proiektu onenaren sariaren babesle gisa.
- **Ikerlan S. Coop.** proiektu berritzaileenaren sariaren babesle gisa.
- **Mundukide Fundazioa**, inpaktu sozial handiena duen proiektuaren

3- NORK HAR DEZAKE PARTE?

Sariak irabazteko hautagai izan daitezke ikasturte honetan adinez nagusi diren pertsonak, baldin eta 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean TFG edo TFM lan bat unibertsitatea batean aurkeztu badute.

Sariak irabazteko TFG edo TFM hautagaien baldintzak:

- Gutxienez 8ko kalifikazioa izatea 10 puntuko eskalan, edo portzentualki baliokidea den kalifikazio bat izatea.
- Sarien bost kategoria tematikoetako batekin lotuta egotea.

4 - NOLA ETA NOIZ AURKEZ ZAITEZKE?

Eskaerak egiteko epea 2026ko otsailaren 1eko 00:00etan hasi eta 2026ko irailaren 30eko 24:00etan amaituko da.

Sarietara aurkezten diren eskatzaileek, horretarako prestatutako izen emate inprimakia bete beharko dute Shaking Hub webgunean (<https://shakinghub.com/tfg-tfm/>).

Izena emateko inprimakian honako datu hauek bete beharko dira:

- Lanaren egilea edo egileak identifikatzeko datuak.
- TFG edo TFM lanaren **izenburua**.
- TFG edo TFM lanaren **hizkuntza**.
- TFG edo TFM lanaren **modalitatea**.
- TFG edo TFMa **erakunde** batetan garatu baldin bada, horren **izena**.
- **Nola ezagutu duten** TFG TFM MONDRAGON Sariak ekimena.
- TFG edo TFM lanaren **laburpena**, gehienez **200 hitzetan**.
- Aurkezten den **tematikari egindako ekarpenaren justifikazioa**, **ekarpena zein gairi** egiten zaion/zaien zehaztuz, gehienez ere **500 hitzetan**.
- **Lanaren originaltasunaren, berritasunaren eta sormenaren justifikazioa**, adieraziz ideiak eta ikuspegiak zein neurritan diren berriak edo originalak, eta nola bereizten diren lehendik existitzen ziren beste ideia eta ikuspegi batzuetatik (gehienez **200 hitzetan**).
- **Lanaren kalitatearen justifikazioa**, non erabilitako planteamendu metodologikoa azalduko baita (adibide gisa, justifikazio horrek helburuak, faseak, hipotesiak, datuen tratamendua, testaketa, iturriak eta erabilitako erreferentziak barne har ditzake, besteak beste), gehienez **200 hitzetan**.
- **Sarietara aurkeztu ahal izateko baldintzak betetzeari buruzko zinpeko adierazpena** (adin nagusitasuna, TFG edo TFM lanaren aurkezpen data eta lortutako kalifikazioa).

Deialdia ebatzi ahal izateko, deialdiaren Epaimahaiak egokia iruditzen zaion edozein informazio osagarri eskatu ahal izango die bai lanaren egileari edo egileei eta baita TFG edo TFM lana aurkeztu zen unibertsitateari ere.

Epea ez betetzeak edo adierazitako dokumenturen bat ez aurkezteak eskatzailea ebaluazio prozesutik kanpo uztea ekarriko du.

5- NORK ETA NOLA BALORATZEN DITU TFG ETA TFM LANAK?

5.1 – Gai-kategoriak

Epaimahai bat eratuko da oinarri hauen xedean adierazitako gai-kategoria bakoitzerako. Epaimahai bakoitzak kide hauek izango ditu: Koordinatzaile bat, MONDRAGONeko kooperatibetatik kanpoko epaimahaiak, MONDRAGON kooperatibetako epaimahaiak eta unibertsitateek proposa ditzaketen epaimahaiak.

Sariak emateko lanen balorazioa irizpide hauen arabera egingo da:

- **Lana aurkezten den gaiari** egiten zaion ekarpena. Bertan, aurkezten den lanaren gaia eraldatzeko erronkei egindako ekarpen kontzeptual eta/edo praktikoek duten garrantzia baloratuko da.
- **Lanaren originaltasuna, berritasuna eta sormena.** Bertan, lanak lehendik zeuden beste lan edo ikuspegi batzuen aldean ematen duen diferentziala baloratuko da.
- **Lanaren kalitatea.** Bertan, lanaren egituraketa, prozesu metodologikoa, datuen, iturrien edo erreferentzien tratamendu sistematikoa eta azalpenaren argitasuna baloratuko dira.

Lanen balorazioa bi fasetan egingo da:

1. Lanen hasierako behaketa:
 - Lan finalisten hautaketa hautagaiek izena emateko inprimakian emandako informazioan bakarrik oinarrituta egingo da, eta epaimahaikideek ezin izango dituzte lan osoak eskuratu. Horregatik, **izena emateko inprimakia arretaz betetzeak** duen garrantzia nabarmendu nahi dugu.
 - Fase honetan, epaimahai bakoitzeko koordinatzaileak lanen balorazioa anonimotasun edo balorazio “itsuko” baldintzetan egiten dela zainduko du.
 - Hasierako baheketa fase hau 5 kategorietan 10 lan finalistak hautatzean amaituko da.
2. Lan finalisten balorazioa:
 - Bigarren fasean, epaimahaiak 10 lan finalistak baloratuko ditu, izena emateko inprimakia eta lan horien jatorrizko dokumentuak aztertuz, eta kategoria bakoitzean saritutako bi lanak hautatuko ditu.
 - Epaimahai bakoitzeko koordinatzailea arduratuko da lanen egileekin edo jatorrizko unibertsitatearekin lotura zuzenen bat duten epaimahaiek ez ditzaten lanok baloratu.

Aurreikusitako sariren bat eman gabe gelditu daiteke, lanik ez delako aurkeztu edo aurkeztutakoen kalitatea eskasa izan delako.

5.2 - Zeharkako sariak

Epaimahai bat eratuko da oinarri hauen xedean aipatzen diren zeharkako bi sari bakoitzerako. Epaimahai bakoitza koordinatzaile batek, MONDRAGON kanpoko epaimahaiak eta MONDRAGON kooperatibetako epaimahaiak osatuko dute. Zeharkako 3 sari horietako lan irabazlea, 5 gai-kategoriatako 50 lan finalistetatik hautatuko dira.

Zeharkako sariak honela baloratuko dira:

1. Lanik berritzaileenaren eta inpaktu sozial handienaren saria:

- Gai-kategoria bakoitzeko epaimahaiak lan finalisten artean bi lan proposatuko ditu.
- Lan berritzaileenaren sariaren epaimahaiak gai-kategoriaren epaimahaien proposamenak jasoko ditu, eta lan guztien artean aukeratuko du irabazlea.

2. Euskarazko proiektu onenaren sariaren kasuan, kategoria horretako epaimahaiak euskaraz egindako lan finalista guztiak ebaluatuko ditu eta lan irabazlea aukeratuko du. Finalisten artean euskarazko lanik ez balego, euskaraz aurkeztutako lan guztiak baloratuko dira.

6 - SARIAK EMATEA

Sariak banatzeko ekitaldia 2026eko azaroaren 27an aurreikusita dago, eta bertan finalista izendatuko lanen egileak egotea derrigorrezkoa izango da. Euskara eta Gaztelera erabiliko dira ekitaldian, partaide guztien ulermena bermatuz. Erakundeak finalista lanen egileei aldezturik jakinaraziko die noiz eta non egingo den sariak banatzeko ekitaldia. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, finalista izendatuko lan baten egilea edo egileak sariak banatzeko ekitaldira eta Inpaktuday ekitaldira ez joateak dagokion saria edo diploma eskuratzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Epaimahaiak baloratuko ditu ezinbesteko kasuak. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo edo Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo bizi diren lan finalisten egileentzat, sari-banaketara joateko joan-etorrien gastuak MONDRAGON S. Coop.-ek ordainduko ditu, lan bakoitzeko 350,00€ko maximoarekin. Zenbateko honetan txertatzen diren gastuak mugikortasunarekin lotuta egongo dira (hegazkina, tren, autobusa edota auto propioa), eta antolaketak hasierako proposamen bat egingo dio finalista bakoitzari mugikortasun aukerak kontutan izanda.

7 - PARTE HARTZEAREN BATERAGARRITASUNA ETA DOAKOTASUNA

Sarietara aurkeztea bateragarria da eskatzaileak aukeratutako beste batzuetara aurkeztearekin, edo beste deialdi, beka edo dirulaguntza batean parte hartzearekin.

Sariketan parte hartzea doakoa da, eta bertan parte hartzeko ez da beharrezkoa erosketarik edo ordainketarik egitea.

Sariketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Antolatzailearen eskumena izango da Oinarri hauek aldatu edo bertan gehikuntzak egitea, baldin eta aldaketa horiek ez badiete parte hartzaileei kalterik egiten.

8 - DATU PERTSONALEN BABESA BABESTUTAKO SARIETARAKO

Sari hauek MONDRAGON S. COOP.ek sustatzen ditu. Shaking Hub talentuaren komunitatearen sortzailea da MONDRAGON.

Inprimakiaren bidez lortutako parte hartze datuak interesduna ekimenean erregistratzeko tratatuko dira.

1. Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna KOANTOLATUTAKO SARIETAN?

Tratamenduaren erantzunkideak	1.- MONDRAGON S.COOP. (aurrerantzean MONDRAGON). IFZ: F20350823. Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua. Kooperatiba Erregistroan 1991-02-08an 162. zenbakiarekin inskribatua, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan 2/91 zenbakiarekin, GUI-324 folioan 324. idazpenean. 2.-Kooperatiba koantolatzailea. Kasu hauetan: - Danobatgroup Saria: DANOBAT GROUP S.Coop. (aurrerantzean, Danobatgroup). Egoitza: Arriaga kalea 2, 20870 Elgoibar (Gipuzkoa). Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dago, 945 folioan, Sozietate Kooperatiboen Inskripzio Liburuan. Inskripzio-zenbakia: 97.0.010. IFK: F-20139804. - Fagor Taldea saria: FAGOR S. COOP. (aurrerantzean, Fagor Taldea), helbidea Arrasaten (Gipuzkoa) duena, San Andres auzoa z/g, IFZ F-20096525 duena, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatua, Sozietate Kooperatiboen Inskripzio Liburuko 510. folioan, 89.1.331 zenbakiarekin. - Laboral Kutxa Saria: Euskadiko Kutxa, Coop. de Crédito (aurrerantzean, Laboral Kutxa) Merkataritza Erregistroko inskripzioa: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua, 253 liburukian, 65 folioan, SS 31616 orrian, 0 liburuan. IFZ: F-75076935. Helbide soziala: Paseo José M^a Arizmendiarieta z/g -Arrasate-Mondragón. - Eika Saria: EIKA, S.COOP (aurrerantzean, Eika), helbide soziala Urresolo 47, Etxebarria (Bizkaia) duena eta IFZ F-48067615 duena. Kooperatiba hau Euskadiko Kooperatiben Erregistroan dago inskribatuta, Eusko Jaurlaritzaren Inskripzio Liburuko III. liburukiko VI. 106/86 zenbakian, 338. folioan. - Ikerlan, S. Coop (aurrerantzean, Ikerlan), Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatua, 1. liburukian, 33. folioan, 3. idazpenaren azpian. IFZ: F20079828. Helbide soziala: P.^a J. M. Arizmendiarieta, 2 20500 Arrasate. - Mundukide Fundazioa (aurrerantzean, Mundukide), egoitza soziala Iturriotz 27-1; 20500 Arrasate duena eta IFK G20673604 duena, 2000ko maiatzaren 15ean Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro Orokorrean inskribatua F-83 erregistro-zenbakiarekin eta 2008/01/08an inskribatua Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan.
--------------------------------------	--

Kooperatiba koantolatzaileak, Fagor Taldea, Danobatgroup, MONDRAGON Health, Laboral Kutxa, Eika, Ikerlan eta Mundukidek, eta MONDRAGONek, TFG-TFM MONDRAGON Saria kategoria desberdinetan parte hartu nahi dutenen datu pertsonalen tratamenduaren erantzukizuna dute.

Erantzunkidetasun hori akordio baten bidez arautu da, eta akordio horrek bete egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 26. artikuluan erantzunkideentzat ezarritako betebeharra. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua (DBEO) indargabetzen du.

2. Zer datu biltzen ditugu, zer helbururekin eta legitimaziorekin tratatzen ditugu?

2.1) Datuaren tipologia:

	Datuen kategoriak
MONDRAGON	• Identifikazio eta kontaktu datuak. (inprimakia betez emandako datu pertsonalak eta beste batzuk, erregistroa dela-eta eskaera baloratzeko beharrezkoak badira; baita honako hauek ere: izen osoa, NAN/AIZ/Pasaportea, helbidea, posta kodea, herria, probintzia, herrialdea, telefono zenbakia, lanaren egilearen edo egileen helbide elektronikoa, sinadura) • Datu pertsonalak.(sexua, adina, hizkuntza, nazionalitatea) • Kategorian duten egoerari buruzko datuak. (akademikoak – unibertsitatea, fakultatea, egindako gradua edo masterra, campusa, TFGaren edo TFMaren izenburua, TFMaren edo TFGaren aurkezpen data, lortutako kalifikazioa, besteak beste) Kategoria espezifikoan erregistratutako eduki guztiak interesdunaren jabetzakoak izango dira. Jabetza intelektualaren eskubideak egilearenak izango dira, hau da, interesdunarenak. • Nabigazio datuak. (prozesu informatikoen, nabigazio ohituren eta baliabide eta/edo ingurune digitalen erabileraren ondoriozkoak, IP helbidea eta cookien, pixel etiketen eta beste teknologia batzuen bidez jasotako informazioa) • Ondorioztatutako datuak. MONDRAGONEk legalki lortutako datuetatik ondoriozta ditzakeenak • Shaking Hub komunitatearen datuak. (Datuak babesteko politika onartzearen ondorioz Shaking Hub komunitatearen irismenean sortutako eta jasotako datuak: https://shakinghub.com/proteccion-de-datos)
KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA	• Identifikazio eta kontaktu datuak. (inprimakia betez emandako datu pertsonalak eta beste batzuk, erregistroa dela-eta eskaera baloratzeko beharrezkoak badira; baita honako hauek ere: izen osoa, NAN/AIZ/Pasaportea, helbidea, posta kodea, herria, probintzia, herrialdea, telefono zenbakia, lanaren egilearen edo egileen helbide elektronikoa, sinadura) • Datu pertsonalak. (sexua, adina, hizkuntza, nazionalitatea) • “Sarietan” duten egoerari buruzko datuak. (akademikoak – unibertsitatea, fakultatea, egindako gradua edo masterra, campusa, TFGaren edo TFMaren izenburua, TFMaren edo TFGaren aurkezpen data, lortutako kalifikazioa, besteak beste) Kategoria espezifikoan erregistratutako eduki guztiak interesdunaren jabetzakoak izango dira. Jabetza intelektualaren eskubideak egilearenak izango dira, hau da, interesdunarenak. • Ondorioztatutako datuak. KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEAK

	Datuen kategoriak
	legez lortutako datuetatik ondoriozta ditzakeenak

	Helburua eta legitimazioa
MONDRAGON	“Kooperatiba koantolatzailearen kategorian” izena ematea, alta ematea edo erregistratzea ahalbidetzea. Legitimazioa: interesdunaren adostasuna eta kontratua gauzatzea
KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA eta MONDRAGON	“Sarietan” parte hartzeko alta edo erregistroa formalizatzea Legitimazioa: kontratua gauzatzea
MONDRAGON	Shaking Hub komunitatean alta edo erregistroa formalizatzea. Legitimazioa: kontratua gauzatzea
MONDRAGON	MONDRAGON eta/edo Shaking Hub-en interesa dutenak fidelizatzea, talentua erakartzeko tratamenduen bidez. Legitimazioa: interesdunaren adostasuna
KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA eta MONDRAGON	Ebaluatu Legitimazioa: kontratua gauzatzea
KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA eta MONDRAGON	Irabazleak aukeratu eta emaitza jakinarazi Legitimazioa: kontratua gauzatzea
KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA	Interesdunak fidelizatzea, talentua erakartzeko tratamenduen bidez. Legitimazioa: interesdunaren adostasuna

Datuak mantentzeko epea	Datuak ekimena amaitu arte tratatuko dira, eta, betiere, horiek ezabatzea eskatzen ez den bitartean edo SHAKING HUBen jarduerari eusten zaion bitartean. Jarduerarik eza 18 hilabetekoa izatera iristen bada, datuak ezabatu egingo dira.
Hirugarrenei datuak jakinaraztea	Hala badagokio: (a) administrazio erakundeei edo bestelakoei, baldin eta, horretarako legitimatuta egonik, hala eskatzen badiete (b) administrazio publikoetako organo eskudunei, (c) epaitegi eta auzitegiei (d) SHAKING HUB sareko laguntzaileei, zeintzuen nortasuna interesdunak SHAKING HUB zerbitzua eta/edo ekimena aukeratzen duen une beretik jakingo baita.
Eskubideak baliatzea	Sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko eta eramangarritasunerako eskubideak, edozein unetan, helbide honetara jota: tfg_tfm_sariak@mondragoncorporation.com
Kontrol agintaritzari erreklamazioak egitea	Eskatzaileek uste badute beren eskubideren bat urratu egin dela, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko egitea

	Espainiako Agentzian (DBE), esteka honen bidez: https://www.aepd.es/
--	--

Eskatzaileak dira emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren erantzule bakarrak, eta datu horiek eguneratuta edukitzeko konpromisoa hartuko dute. Eskatzaileek hirugarrenen datu pertsonalak ematen badituzte, hirugarren horiei jakinaraziko diete emandako datuen edukia, haien datuak biltzen dituen fitxategiaren existentzia eta helburua eta eskubideak erabiltzeko aukera. MONDRAGON S. COOP. eta KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA identifikatuko dituzte eta hirugarren horren baimena lortu beharko dute MONDRAGON S. COOP.i eta KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEari haren datuak jakinarazteko.

Eskatzaileek erantzukizun orotatik salbuesten dituzte MONDRAGON S. COOP. eta KOOPERATIBA KOANTOLATZAILEA datuak babesteko politika hau ez betetzeagatik ezar daitekeen edozein erreklamazio, isun edo zehapenengatik.